

## **IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAN URAREN ZIKLO INTEGRALAREN KUDEAKETA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ALDATZEKO PROIEKTUA EGIN AURRETIKO HERRI-KONTSULTA**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa betetze aldera, eta egin aurretik, aipatutako ordenantza aldatzeko proiektuari buruz alderdi hauek planteatzen dira:

### **a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak**

Iruñerriko Mankomunitatean (IM) Uraren Ziklo Integralaren kudeaketa arautzeko ordenantza 2008koa da, eta 2011n eta 2014an aldaketa puntual batzuk egin zitzaizkion. Urte hauetan guztietan, aldaketa normatiboak izan dira, Uraren Ziklo Integralarekin lotutako zerbitzua emateko moduan hobekuntzak egin dira eta jarduteko esparrua aldatu da. Horrek guztiak eskatzen du ordenantza eguneratzea; hauek barne hartuko dituen eguneratzea egitea:

1. Iruñerrian lehortearen aurrean ur-horniduraren larrialdi-planeko neurriak sartzea. Plan hori Batzar Nagusiak 2020ko azaroaren 16an egin zuen saioan onartu zen.
2. Neurtzeko ekipoen bizitza baliagarriaren aldia ICT/155/2020 Aginduan araututakora egokitzea, agindu horren bidez kontrol metrologikoa arautzen baita.
3. IMren jarduketa-esparrua eguneratzea.
4. Hornidura- eta saneamendu-zerbitzuetarako sarbidea, beren eduki tekniko eta juridikoa, eta ematen diren modua berrikusi eta eguneratzea, egungo teknika eta sistemekin bat etorrira, gizartearen bilakaerarekin, eta bai legeria eguneratu eta aplikatzearekin ere (hirigintzakoa, ingurumenekoa, zergetakoa, kontratuena eta zehatzekoa).
5. Instalazio zaharrak egokitzeko beharra berrikustea.

### **b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den**

Iruñerrian lehortearen aurrean ur-horniduraren larrialdi-plana onartzeak, ICT/155/2020 Aginduan araututako kontagailuen bizitza baliagarriaren aldia luzatzeak eta Lantzeko hoditeriaren aktiboak Ultzanuetako Mankomunitateari lagatzeak berekin dakartzate aldaketak IMk Uraren Ziklo Integralarekin lotutako zerbitzuak emateko erregulazioan, zikloa arautzen duen ordenantzari jasota egon behar duten aldaketak.

Egoera baliatuko da zehazteko edo aldaketak sartzeko zaharkituta edo erregulazio zehatzago baten beharrean zeuden alderdietan, herritarrekin, administrazio desberdinekin eta talde profesionalekin hartutako esperientzia kontuan hartuta.

Eraikinak eta instalazioak birgaitzea eta berritzea gero eta indar handiagoa hartzen ari da, kontuan hartuta hirien erdialdeak suspertzeko eta dotazio publikoak berritzeko administrazio desberdinek hartutako politikak. Garrantzitsua da proiektu horien barnean aintzat hartzea hornidura- eta saneamendu-zerbitzuak ibiltzen diren instalazioak egokitzea, eta neurtzeko ekipoak kokatzeko zenbait mota edukitzeko aukera, hartara, une bakoitzean aukeratu ahal izateko hirigintza- eta eraikitze-baldintzetarako egokiena.

Zerbitzuak emateko moduan egon den bilakaerak eta herritarren eskaerek urte hauetan, eta legerian izan diren hainbat aldaketak lizentzien eta baimenen gaian, ekartzen dute beharrezkoa izatea zerbitzuaren edukiarekin lotutako alderdiak eta herritarrekiko dagoen erlazio juridikoa berrikustea.

Halaber, araudi zaharkituari egiten zaizkion erreferentziak kentzea eta egun indarrean dagoenarekin ordeztzea (zehapen-erregimena, arau teknikoak, adibidez, UNE arauak, Eraikingintzaren Kode Teknikoa edo birgaitze-arloko beste batzuk) proposatzen da. Horrez gain, nomenklatura teknikoa egokitzea proposatzen da, egokia bada, duela gutxi argitaratu diren IMren sareen ordenantzetara.

Azkenik, aldaketa baliatu nahi da akatsak zuzentzeko, eta hizkera inklusiboa eta berdintasunezkoa sartzeko.

### **c) Arauaren helburuak**

1. Iruñerrian lehorteen aurrean ur-horniduraren larrialdi-planean proposatutako neurriak barne hartzea, zerbitzuaren erabilgarritasunarekin, erabilera murriztearekin eta zehapen-erregimenarekin lotuta.
2. Lantzeko iturburuetatik datorren urari egiten zaion erreferentzia oro kentzea.
3. Kontagailuen bizitza baliagarriaren epea aldatzea 12 urte arte eta bai kontagailu-mota bakoitzerako zehaztutako kokapenak ere, hartara, une bakoitzean aukeratu ahal izateko hirigintza- eta eraikitze-baldintzetara hobekien egokitzen dena.
4. Bilakaera normatibo eta teknologikoaren eta hartutako esperientziaren arabera, zerbitzuen edukia eta haietarako sarbidea berrikustea, eta bai IMren eta herritarren eskubideak eta betebeharrak ere, ematearekin lotuta, eta arau-haustea dakarten jokaerak.
5. Segurtasun juridikoa ematea zerbitzuak kontratatu, fakturatu eta kobratzeari, dagokien erabilera kontratatzeak izan daitezkeen egoera berriak eguneratzearen bidez, kontratatzeko betebeharrak, baldintzak eta izapideak, fakturazioa eta kobrantza egoeretako bakoitzerako.

### **d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik**

Ordenantza batean agertzeko beharrak berekin dakarren arauzko ahalmenaren bidez egin behar da tokiko erakundeek gai edo arlo hau arautzeko beharrezkoa den garapena; izan ere, herritarrekiko harremanak arautzea baita asmoa, oinarrizkotzat jotzen diren

zerbitzuekin lotuta, horrenbestez, pertsonen aniztasun mugagabea izanda hartzaileak eta geroko eta segidako aplikazioak egiteko modukoa izanda.

---

Herri-kontsultaren hartzaileak:

- Iruñerriko herritar guztiak.
- Kontsumitzaileen elkarteak.
- Etxebizitzen sustatzaileak/eraikitzaileak.
- Elkargo profesionalak (arkitektoak, arkitekto teknikoak, industriakoak, agronomoak, finka-administratzaileak, higiezinen jabetzako agenteak...).